

LEIOAKO SANTA AGEDA KANTUEN XXVII. LEHIAKETA

Leioako Udalak Leioako Santa Agedako Kantuen XXVII. Lehiaketa deitu du. Ondokoak izango dira lehiaketaren oinarriak:

- 1.- Santa Ageda lehiaketa Leioako auzoetan egingo da **2016eko otsailaren 4an**, osteguna.
- 2.- Bi **kategoria** deitu dira:
A: 16 urtera arte (goiz eta arratsaldez)
B: 16 urtetik aurrera.
- 3.- **Bost jarduketa-alde** ezarri dira, talde bakoitzak gehien komeni zaiona aukeratu ahal izan dezan:

A aldea: Lamiako.
B aldea: Pinueta-Ibaiondo.
C aldea: Erdigunea.
D aldea: San Bartolome / Basaez - Artatzagana.
E aldea: Kandelazubieta- Udondo
- 4.- Taldeak aldea aukeratu ondoren, alde bakoitzerako antolakuntzak ezarritako lekuetan jardun beharko dute:

A gunea: Lamiako
Adinekoen Etxea, Txopoeta, Txorierrri eta Langileria.
B gunea: Pinueta-Ibaiondo.
Pinueta Kulturgunea, Cervantes plaza, beira-putzegilearen estatuaren ingurua, Ibaiondo.
C gunea: Erdigunea
Ikea plaza, San Juan auzoa, Euskal Etxeen plaza, Jose Ramon Aketxe eta Errekalde plazak.
D gunea: San Bartolome/Basaez - Artatzagana.
Artatza kalea, Negurigana, baseliza eta Artatzagana plaza.
E gunea: Kandelazubieta - Udondo
Kandelazubieta kalea, Udondo Boulebarra
- 5.- Leku horiez gain, talde bakoitzak beste gune batzuetan ere abestu ahal izango du, bai beren aldean, bai alde horretatik at.
- 6.- Taldeetan abeslariak eta musika tresnak egon daitezke, gutxienez, 12 partaide.
- 7.- Epaimahaiak talde bakoitzaren kantaldia entzun eta ezarririk dauden lekuetan bertan emango du puntuazioa. Epaimahaiaren epaia aldaezina izango da. Taldeei kantatzeko ordutegia esleituko zaie:
- A kategorian, adierazitako guneetarako batean.
- B kategorian, Euskal Etxeen Plazan.
- 8.- Taldeek euskaraz kantatu beharko dute eta kontuan hartuko dira kantarien janzkera eta girotzea, oro har.
- 9.- Oinarriotan ezarritako beharkizunak betetzen duten taldeek 60 euroko saria jasoko dute.
- 10.- Ondokoak izango dira kategoria bakoitzeko **sariak**:
1- 350 euro, garaikurra eta diploma.
2- 250 euro, garaikurra eta diploma.
3- 175 euro, garaikurra eta diploma.
- 11.- **Inskripzioa 2016eko urtarrilaren 29a baino lehen** egin beharko da hemen:

KULTUR LEIOA
Jose Ramon Aketxe plaza 11 – 4. solairua
Tel.: 94 607 25 78

* Dirua biltzea talde bakoitzaren ardura izango da eta eskubide osoa izango dute hori egiteko.

* **SARI BANAKETA: otsailaren 6an, larunbata, 12:00etan.** Kultur Leioako erakusketa aretoan.

